



Ebazpena, 2018ko ekainaren 21ekoa, Hezkuntza Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearena. Ebazpen honen bidez ondoren zehaztutako deialdiko 6.4 artikulua ezarritakoaren arabera aurkeztutako eskaerak behin betiko ebazten dira. Deialdia hau da: 2017-2018 ikasturteko Haur Hezkuntza (2. zikloa), Lehen Hezkuntza eta DBH (1. eta 2. zikloak) egiten ari diren ikasleen eskola-garraiorako banan-banako diru-laguntzetarako deialdia.

Hezkuntza Saileko sailburuaren 2017ko abenduaren 28ko Aginduaren bidez, 2017-2018 ikasturteko Haur Hezkuntza (2. zikloa), Lehen Hezkuntza eta DBH (1. eta 2. zikloak) egiten ari diren ikasleen garraiorako banan-banako diru-laguntzak eskuratzeko deialdia egin zen. (2017ko abenduaren 28ko EHAA).

Hezkuntza Saileko, 2018ko maiatzaren 15eko sailburuordearen Ebazpenaren bidez ebatzi zen aipatu den deialdia, behin-behineko izaeraz, 6.4 artikulua ezarritakoaren arabera. 2017ko maiatzaren 23an argitaratu zen "euskadi.eus" Web-guneko iragarki taula elektronikoan, eta alegazioak aurkezteko epea ezarri zen.

Kontuan hartuta ez direla alegazioak aurkeztu, honako deialdi hau arautzen duen Aginduaren 8. artikulua arabera,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa: deialdian araututako baldintzak betetzen dituzten ikasleen diru-laguntzak esleitzea behin betiko.

Mila zazpiehun hirurogeita hamalau koma hogeituro euroko (1.774,20 €) diru-kopurua esleitzea.

Bigarrena: deialdiaren behin betiko esleipen hau eta onartuak izan diren eskabideen zerrendak argitara ematea "euskadi.eus" Web-guneko iragarki taula elektronikoan, interesdunak jakinaren gainean egon daitezen.

Hirugarrena: behin betiko ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahalko zaio Hezkuntza sailburuari hilabeteko epean, "euskadi.eus" Web-guneko iragarki taula elektronikoan ebazpen honen berri ematen den hurrengo egunetik kontatuta.

Vitoria-Gasteizen, 2018ko ekainaren 21ean


Olatz Garamendi Landa
Administrazio eta Zerbitzuen sailburordea